

Eskema bat egiteko urratsak gogoratzearekin batera, ikaslearen liburuko 28. orrialdeko informazio nagusia biltzen duen eskema osatuko duzu.



Irakur ezazu urrats bakoitza, eta erantzun galderei.

1. AURKITU

- Testuko gai orokorra eta azpigaiak.
- Ideia nagusiak eta xehetasun garrantzitsuak.

- Zein da gai nagusia?
 - Sintesi-prozedurak
 - Indar edo eragile geologikoak
 - Geomorfologia
- Zein dira azpigaiak? Nola izendatuta ageri dira liburuko informazio-testuan? ...

.....

.....
- Hemen beheko informazio mota hauetatik zein ematen dira gai nagusiari buruz nahiz azpigai guztiei buruz?
 - Sorrera (nola sortzen diren)
 - Definizioa (zer diren)
 - Babes-aholkuak (nola babestu hondamendi naturaletatik)
 - Deskribapen zehatza
- Zer funtzio nagusi betetzen dute argazkiek?
 - Azpigai bakoitzarekin zerikusia duten adibideak erakutsi.
 - Paisaia erakargarriak erakutsiz, irakurleei jakin-mina eragin.
 - Orrialdea apaindu.

2. HAUTATU

- Informazio garrantzitsua modu laburrean adierazteko giltza-hitzak.

- Hona hemen eskeman erabil ditzakezun hitz batzuk. Adieraz ezazu bakoitza zer den: gai nagusia (GN), azpigaiak (AG), ideia nagusiak (IN) ala xehetasunak (X).

- ☐ Lurraren barnean sortzen dira.
- ☐ Indar edo eragile geologikoak (geomorfikoak)
- ☐ Ibaiak, itsasoa, glaziarrek...
- ☐ Lurraren itxura eraldatzen duten fenomeno edo prozesuak dira.
- ☐ Kanpoko eragileak (indar berdintzaileak)
- ☐ Sumendiak, lurrikarak...
- ☐ Lurrazalean higadura sortzen dute.
- ☐ Barruko eragileak (indar eraikitzaileak)



3. ANTOLATU

- Informazioa eskema mota egoki batean.

- Egin behar duzun eskemaren itxura erabakitzeko, funtsezkoa duzu, kasu honetan, ideia hau: “*Indar geologikoak bi eratakoak izan daitezke, sortzen diren tokiaren arabera*”. Nola adieraziko duzu hori eskeman?
 - a. 2 zenbakia idatzita.
 - b. Gai nagusitik ateratzen diren bi geziren bitartez.
 - c. Lur planeta marraztuz eta bertan bi tokiak seinalatuz.

4. IDATZI

- Gai, azpigai edo kontzeptuak letra maiuskulekin.
- Gainerako informazioa letra minuskulekin.

- Aurreko galdera eta ariketetan emandako erantzunak kontuan hartu, eta egin ezazu eskema.



Eskeman oinarrituta, azal iezaiozu lagun bati, ahoz, gaiari buruz ikasi duzuna.

Unitatean aurrera egin ahala, eskemako gaiari buruzko informazio gehiago eskuratuko duzu, eta hemen hasitako eskema hau zure koadernoan egokitzen eta osatzen jarraituko duzu.